

BATZAR AGIRIAK

1976 - I - 2

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1976ko urtarrilaren 2an, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, A. Arrue, A. Irigoyen, P. Lafitte eta J.M. Satrustegi euskaltzain jaunak; P. Altuna, J.M. Aranalde, J. Aranburu, I. Berriatua, S. Garmendia, J. Intxausti, X. Kintana, E. Knörr, J.M. Lekuona, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, X. Mendiguren, K. Santamaria, I. Sarasola, P. Uribarren eta J. J. Zearreta laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dela.

Dassance, Davant, Diharce, Irigaray, Larre, Larzabal eta Mitxelena jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Urriko eta azaroko batzar agiriak onhartu dira.

a) HAR-EMANAK:

Liburu zainak azaroan eta abenduan hartu diren liburuen berri eman du. G. Larrañaga, Diharce, L. M. Muxika eta I. Sarasola Euskaltzaindikoak eman dituzte beren liburuak; Jakin, Gero, Ekin, argitaldaria argitaratu dituzten liburu berriak, eta horiez gainera beren lanen separatik A. Irigoyen, J. Garate, J. A. Loidi Bizkarrondo, A. Tovar eta J. M. Satrustegi jaunak. 1975eko urrilaren 31ko batzarrean erabaki zen bezala, hemendik aurrera hartzen diren liburuen zerrendak aparte emango dira: egile, titulu, neurri, orrialde eta abar, fitxa osatuaren zerrenda aparte emango da, geroago gauza bera EUSKERA aldizkarian bi aldiz ager ez dadin. Beraz, aurrerantzean, "Hartu diren liburuak" bere sail berezian argitaratuko dira EUSKERA XVI eta XVIII (1971 eta 1973) zenbakietan agertu zen bezala.

Lemoako udaletxeari eta Bizkaiko Diputazioari eskerrak ematea erabaki da, J. B. Eguzkitza zenaren omenaldirako eman zizkiguten laguntzatik.

b) GOIZEKO BILKURAREN BERRI:

Euskaltzainburuak eman du goizeko bilkuraren berri. Donostiako ordezkariak osatzea urrango batzarrerako utzi da.

Irakasle tituluatarako epai-mahaia eta bere laguntzaileak gehitzea, urriko batzarrean erabakitakoaz gainera, hauek izendatzen dira: Bizkairako Mikel Zarate eta Xabier Gereño; Nafarroarako Patxi Zabaleta eta Mariano Izeta; Gipuzkoarako Jose Maria Aranalde, Mikel Atxaga eta Salbador Garmendia, eta hauek gainera Gipuzkoako Ikastola Federaziotik berek izendatzen duten bat.

Euskararen irakaskintza eskoletan sartzeaz ere hitz egin da, baina ezertariko erabakirik hartu gabe.

Aditz batzordekoekin zenbait puntu aztertu dira, aditz sintetikoari buruz, eta gai honetaz adiarazpenak egin ditu P. Altuna jaunak.

d) ELKARGOAREN 1976. URTEKO AINTZIN-KONTUA:

J. J. Zearreta laguntzailearen txostena. Euskaltzaindiak bere eginkizunetarako behar lukean presupuestoaren estudio bat agertzen du, 1976. urteko ekintzari begiraturik. Sailketa nagusia: Euskaltzain eta Euskaltzaindikoko langile gastuak, 4.088.000,-; bulego eta lan-gai gastuak, 643.800,-; argitalpenak, 700.000,-; batzar gastuak, 608.000,-; ikerkuntzarako lagunak, 810.000,-; egiteko lanak, 1.990.000,-; liburutegia, 860.000,-; batzorde autonomoei laguntza, 294.000,-; Orotara, urte guztikoa, 9.993.800,-; pezeta. Ondorean sail bakoitzari dagokion xehetasunak agertzen ditu.

e) EUSKARAZKO NEOLOGISMO ETA TERMINOLOGIAREN INGURUAN

X. Mendiguren laguntzailearen txostena, urrileko bilkuran irakurri zuenaren gehigarri, azken urteotan ateratzen ari diren saiaera liburu, enziklopedia eta abar kontuan harturik, erabili diren hitz berriak sakabaturik daudenez, maiz, hitz berarentzat bi, hiru eta lau erakoak ateratzen direla informazio faltagatik eta hala gerta ez dadin hitz eta esakuntza berrien hiztegiaren beharra azaltzen du "Zortzi urte arteko haurren hiztegia", "Merkatalgo izendegia", e.a. bezalako hiztegien premia, hitzen batez baterako lagungarri izango dena.

Hitzen bilketa honetarako Jakin eta Elhuyar taldekoek laguntza eman dezakete, I. Berriatuak Anaitasuna aldizkarian eman dituen zerrendatik, Z. Argia-koak gauza bera eginaz, J. M. Lekuonak Liturgia gaietakoa eta X. Mendigurenek Saioka liburuetarako jasoak, guziekin hiztegi berria osatzeko.

f) 1975 URTEKO BATZARRETARA ETORRI DIRENEN ZERRENDA ETA 1976 URTEKO BATZAR EGUTEGIA

Idazkariak eman du 1975ean batzarretara etorri zirenen berri, izendeitura zerrenda osoa irakurriaz: euskaltzain osoetatik 15; eta ezin etorria adiarazi zutenak 6; ohorezko euskaltzainak 5; eta euskaltzain laguntzaileak 64. Gehien joan zirena Ulibarriren omenez egin zen batzar berezira, 32, eta gutien martxoko batzar arruntera, 17.

Orotara, 1975ean batzarretara agertuak 84. 1973an 64 agertu ziren eta 1974an 55.

Idazkari-ordezkoak aurtengo batzarren egutegia irakurri du. Bi mendurren ospagarri gogoratu ditu, Bitor Garitaonandia Zaldibarren 1876an sortua eta Indalezio Bizkarrondo "Bilintx" urte berean Donostian hila. Hoiengorazarrez batzar bereziak egingo dira.

Jean-Louis Davant jaunaren sarrera hitzaldia, Zuberoan IV. Udako Euskal Unibertsitate egunetan, eta Odon Apraiz ohorezko euskaltzainari

Araban egiteko diren omenaldi eguna izango dira beste batzar bereziak. Gainerakoan, ohi den bezala, Donostian egingo dira batzar arruntak.

Beraz, proposatu eta onhartu den egutegia honako hau da: Urtarrilaren 2an Donostia, arrunta (gaurko hau hain zuzen); Otsailaren 6an Donostian, arrunta; Martxoaren 6an Zaldibarren (Bizkaia), irekia; Martxoaren 26an Donostian, arrunta; Apirilaren 30an Gasteizen, irekia; Maiatzaren 28an Donostian, arrunta; Ekainaren 25ean Donostian, arrunta; Uztailaren 21ean (?), irekia; Abuztuaren 22an Zuberoan, irekia; Irailaren 24an Donostian, arrunta; Urriaren 29an Donostian, arrunta; Azaroaren 26an Donostian, arrunta; eta Abenduaren 29an Bilbon, arrunta.

h) MATEMATIKA EUSKAL HIZTEGIAREN AZTERKETA

Mikel Zalbide, Elhuyar taldeko jaunak matematikazko euskal hiztegiaren azterketazko txostena aurkeztu du, gaztelaniaz, frantsesez eta euskaraz, mailaz maila jarria, orain arte euskara idatzian erabili diren hitzen bilduma. Lanaren helburua, azterketa metodoa, hitz zerrendak, azterketak agertzen duen zenbait problema, eta amaiera iritzia adiarazten ditu. Liburu mardul batean ordenatzaileak eman bezala jasotzen dira hitzak, alboan nondik jasoak diren adiarazten duen giltza jarriaz. Lan baliosa da irakaskintza testuen lagungarri.

Liburua, Elhuyar taldeak Euskaltzaindiari eskaintzen dio, eta eskerak ematen zaizkie.

i) BAKOITZAK DAKARRENETIK

Burugoak aditzera eman du J. Zaitegi jaunak ebakuntza izan duela eta batzarkideak laster gure artean ikusteko gogoia agertu dute.

I. Beobide laguntzailearen anaiaren heriotzaren berri eman da eta gure doluminak agertzea erabaki da.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
Juan San Martin

1976 - II - 6

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1976ko otsailaren 6an, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, A. Arrue, E. Erkiaga, A. Irigoyen, P. Lafitte euskaltzain jaunak; J. M. Aranalde, X. Aranburu, M. Atxaga, S. Garmendia, X. Kintana, E. Knörr, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, J. A. Retolaza, A. Zatarain eta J. J. Zearreta laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dela.

Dassance, Davant, Diharce, Larre eta Larzabal jaunek jakinarazten dute ezin etorri direla.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.